





Galatras jauregia

110 palet historiaz beteak

Pasaiaiko portuko Galatras jauregia *lego* baten moduan deseraiki zuten duela urte eta erdi. Orduz geroztik itsasoari begira daude haren harriak, paletetan bilduta, noiz eraikiko zain. Portuko proiektu urbanistikoetatik herioan salbatu zen itsas ondarearen altxor hau. Orain, arkeologiaren lupak emaitza harrigarriak atera ditu jauregiaren hesteetatik. Historiaren korapilo ugari askatuko ditu euskal ontzigintzaren epizentroan aurkitutakoak.



Galatras
jauregiaren
argazki zaharra,
XX. mende
hasierakoa.
Eraikina ontziolez
inguraturik
zegoen.

ITSAS ONDARE ARKEOLOGIKOA zaindu eta zabal-tzeaz arduratzen den Albaola elkarteko kideek Pasai Donibane (Gipuzkoa) Galatras jauregiaren egoera larria salatu zuten duela bi urte inguru. Eraikina erdi eroria zegoen, nabe industrialean artean preso, eta inguru hartarako zeuden urbanizazio proiektuengatik desagertzera kondenatua. Jauregi enblematikoak balio historiko eta arkitektoniko paregabea du, ontziola eremu tradizional baten erdian kokaturik baitago, eta antzinako itsas konpainia garrantzitsuen bulego izan zen. Ez da edifizio monumental, bai singularrak. Nekez aurkituko dugu Euskal Herrian merkataritza eta ontzigintzari mende luzez hain estuki amarraturik egon den etxerik.

Harriz harri desmuntatua

Gipuzkoako Foru Aldundiari eta gainerako erakunde publikoei jau-

regia kontserbatzeko irtenbide bat eskatu zitzaion. Horrela, Aldundiko Kultura Sailak jauregia harriz harri desmuntatua izango zela jakinarazi zuen, leku egokiago batean eraiki ahal izateko. Donostiako Untzi Museoa 1993an Alberto Santana UHUNeko irakasleari enkargatutako txosten batean azaltzen denez, eraikina teilaturik gabe zegoen eta hondakin bihurtzeko zorian. Gainera, burdinazko balkoi eta elementu gehienak desagertuta zituen, batez ere aldameneko hormetan. Beraz, haren egoera ez zen batere ona desmuntatua izan zenean. Aste batzuen buruan, 200 tona pisatzen dituzten mila harri inguru orube horretatik gertu gorde zituzten, 110 paletetan. Harri horietatik gehienak fatxada eta alboko bi hormenak dira, eraikinaren oskolarenak, alegia.

Kultura Saileko arduradunen hitzetan, itsasertzeko lehen lerroan eta lorategiz inguraturik ikusi nahiko lukete etorkizunean Galatras. Aldundiak proiektu bat esleitu du eta jauregia berreraikitze bidean dira jadanik. Badirudi lehen zegoen lekutik gertu jasoko dutela eraikin historikoa eta kultur azpiegiturarako erabiliko dutela.

“Etxea misterio bat da”

Eraikinak utzitako hutsunean indusketa arkeologikoak egin ditu Aranzadi Zientzi Elkarteak —azkeneko kanpaina uda honetan izan da—. Emaiza bikainak utzi ditu lokatz artean egindako lanak eta dokumentuetan sumatu duten informazio falta orekatzeko balio izan die ikerleei. Izan ere, Xabier Alberdi Albaola eta Aranzadiko arkeologoaren esanetan “etxea misterio bat da, notiziarik ez dago bertako jabeak Perura joan zirenetik”.

Dena den, artxiboetako paper-sortei hautsa astinduz gero jakin daiteke zer edo zer. Gaur egun ezagutzen dugun jauregia beste eraikin baten gainean jaso zen, XVII. mendean. Aurretik dorre errenazentista bat zegoen bertan, Eskorza familiarena. Eskorzatarrek bazuten beste dorre bat Donibane kale estu eta luzearen erdian eta indar handiko jauntxoak ziren. Galatras bezalaxe, familia honen historia itsasoari oso loturik dago. Esaterako, ezaguna da Juan Eskorza kapitainak 1582an Azoreetan egindako balentria: Gipuzkoako eskoadrako itsasontzi batekin, Felipe Strocci jeneral famatuari estandarte erreala konkistatu zion. Estandarte hura Donibane elizan jarri zuten, herritar guztiek ikus zezaten “jaunaren” trofeoa.

Balentriak balentria, urte batzuetara Espainia eta Frantzia arteko gerra piztu zen. Horren ondorioz, 1636an Gipuzkoako eskoadrak Lapurdiko portuak eraso zituen, Espainiako erregearen aginduz. Kontraerasoa 25.000 frantziar soldaduk egin zuten bi urte geroago. Hondarri-

Ustekabea estratu batzuk beherago
etorri da. Galatras jauregiaren
azpiek ontzigintza aztarnak kukutu
dituztela konturatu direnean



ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS



Hormak

Galatras jauregiak fatxada eta alboko bi hormak kontserbatzen ditu hoberen. Hauen egitura sendoak eraikinari soiltasuna ematen diote, baina aldi berean neurrizko jauregia dela ikusgarazten dute.

Harlandua

Hormak manposteriazkoak dira eta izkina guztietan harlanduzko akaberak dituzte. Teilatupeko erlaitzak forma kurbatu probokatzailea du eta harrizko xingola batek jazen du eraikin osoa.

Armarria

Fatxadaren erdi-erdian Martiarena-Barranco familiaren armari dotorea ageri da (jauregiaren lehengo jabeak). 1700 urte ingurukoa da armarria eta itxura barrokoa du. Honen ondoan burdin forjatuzko bi baranda bihurritu kontserbatzen dira oraindik.

Erlojua

Jauregiaren ertz batean elementu kurioso bat aurki dezakegu: eguzki erloju koadrante bat. Koadranteak jauregiaren antzinako itsas-merkatal eginkizuna gogorarazten du, baina aspaldi utzi zion ordua emateari, erdiko makila edo *gnomon*-a falta baitzaio.

bia (Gipuzkoa) setiatu eta Jaizkibel igarota Pasaia jauzi ziren. Eraso hartan Galatras jauregia erre zuten goitik behera, zimenduak eta hormak bakarrik utzi zizkioten zutik. Handik hogeitau urtera, Mariana Eskorzak jauregiaren hondarrak saldu zizkion Salvador Barranco itsas kapitainari, 1.520 erreale truke. Uskeria bat. Honek eraberritu egin zuen eta ordutik *Barrancos* izenarekin ere ezagutu izan den eraikinak eite berdina mantendu du gaur arte.

Sententzia arkeologikoa: ontziolen eta itsas konpainien bihotza

Indusketek dorre zaharren zimenduak azaleratu dituzte eta baita buztinezko tresna eta

lapikoen aztarnak ere. Inguruan etxe gehiagoren oinatzak azaldu dira gainera. Xabier Alberdiren hitzetan, etxe horien berri lehenago ere bazuten, Pasaia mapa zaharretan eraikinen oinplanoak ageri baitira. Ustekabea estrato batzuk beherago etorri da ordea, konturatu direnean Galatras jauregiaren azpiek ontzigintza aztarnak kukutu dituztela mende askoan. Arrasto horiei karbono 14 frogak egin dizkiete Suedian, datazio zehatza jakiteko, eta emaitzek XV. menderaino luzatu dute aztarnategiaren bizitza.

Baina arrastorik garrantzitsuenak uda honetako indusketetan aurkitu dituzte, Nabalaldea itsas poligonoaren obrek aurrera egin ahala. Besteak beste, ontziolen zatiak agertu dira, adibidez, egu-

Txapela
buruan
to ibili munduan

Narrika, 18. Donostia

telf. 943428299 www.txapelaburuan.com



rrrezko antzinako ontzi arrapalak edota oholentzako biltegia. Azkeneko hau idatzizko dokumentuek aipatzen badute ere, orain arte ezezaguna zen adituentzat. Ez dira objektu ikusgarriak, baina berrikuntza handiak ekarriko omen dituzte: “Erdi Aroko ontzigintza mitoz josia dago, baina datu zientifiko gutxi dugu” dio Aranzadiko arkeologoak. Horrela, orokortasunez beterik dagoen garaia hobeto ezagutze-ko aukera izango dute Galatrasek emandako opariarekin. Material esanguratsuen Pagoetako natur parkean dagoen Agorregi burdinolara eramanez dute, bertako putzu batean sartzeko. Izan ere, egurra lokatz artekin ateratzean berehala hasten da usteltzen eta ezinbestekoa da ur azpian edukitzea. Gainerakoa Galatras ondoko “zementerio” inprobisatua dago, buztinetan seilatuak: “Ez dira txanpon txikiak, ohol handiak baizik eta zaila da leku batean mantentzea”, dio Alberdik. Etorkizunean, teknika berriek hala nahi badute behintzat, bertatik ateratzeko modua izango da.

Orain, jauregiak inguruko ontzietekin eta merkatal konpainiekin izan zuen harremana deskubritzeko ahaleginetan dabiltza ikerlariak. Donibane Bizkaia auzoan —erdi-erdian dago Galatras— Espainiako Erregearen ontziolak zeuden eta itsasontziak egiteko harmailak, nasak eta eraikinak kokatu zituzten bertan. XVIII. mendean, Caracaseko konpainiaren bultzadarekin, Pasaia guztiko merkataritza eta ontzigintza suspertu zen, baita Bizkaia auzoko moila ere. Orain arte uste zen Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarraren jatorriko bulegoa Galatras izan zela. Baina adituek ez dute horren inguruan ezer topatu. Aitzitik, ikerketek konfirmatu dute Filipinetako Errege Konpainiak —Caracasekoaren errautsetatik sortua— metropoliko egoitza nagusi bezala erabili zuela eraikin berezia.

San Roke ermita: gera eta izurriteak

Badirudi iraganak Galatrasek itsasoarekin zuen erlazioa berretsi nahi izan duela, eta estratigra-

Ikerketek konfirmatu dute
Filipinetako merkatal konpainiak
metropoliko egoitza nagusi bezala
erabili zuela eraikin berezia

Pasaiaiko kanala, portu naturala

Erromatarrek antzinako portu eraikitzaile handienak izan ziren. Zesarren inperioak teknika berritzaileak erabili zituen portuak egiteko: itsas hondo ezegonkorrean pisu handiko harriak jartzen zituzten eta material hidraulikoa erabiltzen hasi ziren. Hala ere, erromatarrek laster konturatu ziren ez zela berdina Kantaurin portuak egitea: *Mare nostrum* putzu bat zen gure itsasoaren aldean. Kantaurin olatuek indartsu jotzen dute eta marearen gorabeherak izugarriak dira. Horregatik, erromatarrek ibai estuarioetan bilatu zuten babesa. Erromatar portu garrantzitsu baten aztarnak aurkitu dira Bidasoa inguruan, Oiasson, baina Pasaiaiko badiaren babesa ere aprobeztatu zuten Eneasen seme-alabek.

Mokadu goxoa inguruko herrientzat

Dena den, Pasaia ez zen gainerako portuen artean nabarmendu XVI. mendera arte. Erdi Arotik atera berritan, gero eta itsasontzi handiagoak egiten ziren, gerrarako prestatuak edo Indietako karrera egiteko modukoak. Horrek bidegurutzean jarri zituen portu guztiak: edo obra erraldoiak egin merkatal trafiko oparo hartan sartzeko, edo arrantza portu txiki soil izatera etsi. Pasaia ez zuen arazorik izan, bertako kanalaren sakonera ezin egokiagoa zen itsasontzi handiak hartzeko, eta gainera, inguruan burdinola eta baso ugari zituen.

Horregatik, itsasertz hori mokadu goxoa bilakatu zen inguruko herrientzat. Portuko jurisdikzioa Donostiaren esku egon zen mende luzez eta horrek auzi ugari sortu zituen hiriburuaren eta beste herrien artean (Errenteria eta Hondarribia, esaterako). Donostiaren monopolioa XVIII. mendearekin amaitu zen, bi Pasaia (San Pedro eta Donibane) orduan batu baitziren, Vargas Ponce geografoaren informe erabakigarri bati esker.

fiak beste altxor baten hondarrak erakutsi ditu: San Roke ermitarenak. Ermita txiki hau jauregiari itsatsita zegoen eta San Roke plazari izena eman zion. Galatras jauregiko jabeak, Mateo Martiarenak agindu zuen eraikitzea eta 1734an Donibane bikerioak bedeinkapena eman zion. Kanpaia, harlauzez estalitako lurra, aldea eta harraskatxoak zituen.

Mende batez San Rokeren irudia bertan izan zen, marinelek adoratzeko, baina 1823an irudia parroquia-elizara eramanez zuten, sukar-horia zabaldu zelako jendartean. Hain zuzen, urte hartan, Galatras jauregian Fernando VII.aren aldeko lehen udal bilkura egin zen



Ordiziako Udala

ORDIZIAKO UDALA
EUSKARAZ NAHI DUGU BIZI

Euskara Zerbitzua
Kale Nagusia, 26 • 943 805622
euskara@ordizia.org



EUSKARAREN
AHOLKU BATZORDEA

Filipinetako Errege Konpainia, euskal enpresa bat artxipelago galduan

XVII. mendean Europako potentzia nagusiek merkatal konpainia pribilegiatuak sortu zituzten –Ekialdeko eta Mendebaldeko Indietako Konpainiak izan ziren indartsuenak–. Haien arrakasta ikusita, Euskal Herrian Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra sortu zuten mende bat beranduago (1728-1785). Konpainia honek La Guairado Caracasetik kakaoa eta kafea bezalako kolonialak ekartzen zituen, eta Ameriketara berriz, armak eta produktu elaboratuak eramane. Caracaseko konpainiak Pasaian zuen Euskal Herriko portu nagusia. 20 itsasontzi baino gehiagoko flota zuen eta ehunka pertsonak egiten zuten lan berarentzat.

Baina loraldiaren ondoren heriotza luze eta gatazkatsua egokitu zitzaion. Alde batetik, frantziar, ingeles eta holandar kortsarioen presioa, eta bestetik, merkatal pribilegioak galtzeko arriskua. 1784an, hiltorian eta krisiari ezin aurre eginik zebilen Gipuzkoarraren kapitala salbatzeko, Francisco Cabarrús baiona-

rrak proiektu bat aurkeztu zuen, eta horrela sortu zen Filipinetako Errege Konpainia, Caracaseko konpainiaren akzioak erosita.

Bizkaia auzotik Filipinetara, Cadizetik pasatuz

Caracasekoak bezalaxe, egoitza nagusia Pasaian jarri zuen enpresa gazteak, Donibaneko Bizkaia auzoan, eta bertako ontziola zaharkitua itxura berritu zuen. Hasteko, itsasontziak eraikitzeko harmaila berri bat jaso zuen, Galatras jauregia zegoen inguru horretan. Harmaila ontziola baten tresna garrantzitsuena zen eta galipotaz bustirik edukitzen zuten hezetasunik ez hartzeko; hor egiten zuten lan erriberako arotzek. Harmailaz gain, Filipinetako konpainiak pontoi bat eraiki zuen Pasaia badiaren, kanala garbi mantentzeko, eta soka lantegi bat jartzea ere aurreikusi zuen. Konpainiak hainbat itsasontzi eraiki zituen bertan, horien artean 600 tonako *Nuestra Señora de los Dolores* izenekoa,

gerora Manilara hamaika buelta egindakoa. Itsasontziak kalitate onekoak izateko funtsezkoa zen kroskoaren egurra ondo garbitu eta tratatzea, bakterioak eta hezetasuna eragozteko; ardura hori *kalafate* izeneko langileek zuten. Hain zuzen, Filipinetako konpainiak egindako itsasontzi batzuk berriz “kalafateatu” behar izan zituzten Cadizen, bestela ezin izango baitzuten Manilaraino iritsi.

Hasieran negozio errentagarria izan zen akzionistentzat, baina etengabe jasan zuten merkatal pribilegioen kontra zeudenen presioa. Gainera, 1793an Konbentzio Gerra hasi zen eta urte luzeko tirabirek ez zioten batere onik egin, ez Filipinetako Konpainiari eta ezta Pasaia portuari ere. Mende berriarekin Konpainiak galerak besterik ez zituen izan; frantziar iraultzaren pentsakera eta liberalismoa edozein salbuespen edo pribilegioen kontrakoak ziren eta Erregearen faboreak amaitu ziren. Hala ere, euskal konpainia ez zen 1834a arte hondoratu.



George Carpenter-en Pasaia ikuspegia koadroa (1844). Merkatal konpainiek belazko itsasontzi trafiko handia sortu zuten Pasaian.

ONDARE INDUSTRIALA PASAIAN

–“Hirurteko Konstituzionalaren” ondoren–. Urte batzuk beranduago, San Rokeren irudiak oraindik parrokia-elizan jarraitzen zuela salatu zuen Galatras jauregiko jabeak, Legio Britainiarraren soldaduek jauregia okupatu zutenaren aitzakian. Gerra Karlistaren zurrunbiloaren erdian izan zen hori; urte latzak Pasaia eta Euskal Herri osoarentzat. Nola nahi ere, itsasertzeko ermita txiki hark gerrak eta izurriteak jasan zituen, baina ezin izan zion industrializazioaren aurrerakadari eutsi. XX. mende hasie-

ran desagertu zen, PYSBE enpresaren nabeak eraiki zituztenean. San Rokeren adorazioak bere horretan iraun zuen ordea, enpresak patroik gisa hartu baitzuen santua, eta San Roke eguna egun berezia izaten zen langileentzat.

PYSBEren bakailoa lehertzeko toki

Galatras edo *Barrancos* etxea gaur egun arte iraun izanak badu esplikaziorik: praktikotasuna. Eraikina momentu eta egoera guztietara egokitu zen. Izan zen jauregi, ontziolen bulego,

udaletxe, jesuiten eskola –horrela azaltzen da zenbait planotan– eta baita bakailaoa lehortzeko biltegi ere. XIX. mende erdian Jose Aranbarri donostiarrak bertako ontziola zaharkitua erabili zuen bergantinak, korbetak eta baporeak eraikitzeko, eta mende erdi beranduago PYSBEk erosi zituen lur haiek.

PYSBE (Pesquerías y Secaderos de Bacalao de España) 1919an sortu zen bakailaoaren industrian murgiltzeko asmoz, baita lortu ere. Mende erdiz sektore horretako liderra izan zen eta Pasaia Europako portu indartsuena bilakatu zen bakailao arloan. PYSBEk sekulako garrantzia izan zuen Pasaia portua biziberritzeko, lanpostu ugari sortu zituen eta itsasontzi flota propioa eratu zuen. Gerora, itsasontzi horiek Gerra Zibilean erabili zituzten, errepublikarrek lehenik eta frankistek ondoren. Gerra pasatu zenean enpresak itsasontziak berreskuratu eta lanean jarraitu zuen, 70eko hamarkadako krisira arte.

ARGIA



Jauregia harriz harri desmuntatu eta 110 paletetan bildu dute; Donibaneko moilan daude hariak orain.

Bakailao enpresa Donibaneko Bizkaia auzoan ezarri zen hasieratik. Egoitza nagusia Arizabalo etxea zuen, *Almirantearen etxea* ere deiturikoa, bertan zituen bulegoak. Horretaz gain, pabilioi eta kai ugari eraiki zituen inguru horretan: biltegiak, tailerrak, klasifikazio lekuak... Horien guztien artean itota geratu zen Galatras eta eraikina bakailaoa sikatzeko erabili zuten urte luzetan. Aspaldi eder eta airoso ageri zena, arnasarik gabe eta ezkutuan egon da orduz geroztik, hondoa jotako lehorreko ontzia bezala. ■

kulturagenda

Azaroaren 15etik 30era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketa

Eraiki, bete, hustu
Espazioaren erabilerak

Erakustaretoa

2007ko azaroak 29
2008ko otsailak 9

Inaugurazioa
Azaroaren 29an,
20:00etan

Ordutegia:
Asteartetik larunbatera
10:30-14:00 / 16:00-20:30
Astelehen, igande
eta jaiegunetan itxita

Bisitaldi gidatuak
kmk@komazk.com



Kristobaldegia, 14 | 20014 donostia

www.arteleku.net

Symposiuma

Hiri ekoizpenak:

hiru ikuspuntu, hiru eskala,
hiru azterlan

www.hiriekoizpenak.net

Hitzaldiak. Sarrera doan

Astelehena, **azaroak 19**
19:30 16beavergroupen
hitzaldia. *Talde-praktikak*
hiri neo-liberaletan.*

Asteazkena, **azaroak 21**
19:30 Ayreen Anastas
eta Rene Gabriren hitzaldia.
*Azterlan Palestinoarrak.**

*Hitzaldietan aldi bereko itzulpena
eskainiko da.

Nazioarteko Erakustaldia

MID_E 07

www.mid-e.com

Koordinazioa: Yox Kolektiboa

Larunbata, **azaroak 24**
22:00-03:00 Inaugurazio ekitaldia:
Fribotik. Soinu saioa
Sinestesia. DJ saioa
L'enfant terrible. DJ saioa
Alain+Landerground. DJs saioa
Gafapast. Ikustekoak
Tytti Thusberg. Instalazioa
Yon Amarilla. Bideo- instalazioa

Asteazkena, **azaroak 28**
19:30 *Closer Video*. Nazioarteko
bideo-sorkuntza egitaraua.

